

DIRU SARRERAK

Hasteko, enpresako lau bazkideek 2000€ bakoitzeko jarriko ditugu kapital sozial eran.



Gure negozioa berria denez, mailegu bat eskatu beharko diogu bankuari gure instalazioak eta zerbitzuak prestatzen hasteko, eta diru sarrerak izaten hasten garen heinean, bankuari itzuliko diogu hilabetero adostutako kantitatea.

Bestalde, gure diru sarrera nagusiak urtean zehar, gure bezeroek hilabetero ordainduko duten kuoten bidez lortuko ditugu. (begiratu prezio motak) Gainera, diru sarrera horiek gure bezeroei zerbitzuak eskaintzeko, gure instalazioak hobetzeko eta enpresa beste herrialdeetara zabaltzeko erabiliko ditugu.



Beraz, laburtuz, Bankuari 17.000€ko mailegua eskatu beharko diogu eta bazkide bakoitzak, kapital sozial moduan 2000€ jarriko du enpresa eratzeko.

PREZIO MOTAK:

Gure enpresak dituen prezioak finkoak dira, baina adibidez bidaien prezioa edo gazteek lo egingo duten erresidentzien prezioak igo egiten badira, guk eskainiko ditugun prezioak ere igo egin beharko ditugu, gure enpresak galerarik ez izateko.

Horretaz gain, eskainiko ditugun aktibitate edo irteeren prezioak eragina izango du ere.

Egingo dituzten jarduerak:

Gaztetxean dauden instalazioak (billar, futbolin, telebistak...) disfrutatzeaz gain, gaztetxeak antolatutako irteerak egin ditzakete.

- **Adin-gutxikoak (12-15):** Hondartzara, parke naturaletara, aquariumera, zinemara, sendavivara, kutxaespaziora, etab.
- **Adin-gutxikoak (16-18):** Karting-a, buzeroa, zinea...
- **Adin-nagusikoak (18-25):** hirietako bisita gidatuak, museoak...

ADINA	HILABETERO
ADIN-GUTXIKOAK (12-15)	30
ADIN-GUTXIKOAK (16-18)	45
ADIN NAGUSIKOAK (18-25)	60